

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### Datu pertsonalak babesteko ordezkaria izendatzea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko azaroaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak (2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazioari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) 37.1 artikuluan xedatzen du ezen, datu pertsonalen tratamendua aginte edo organismo publiko batek egiten duen guztietan, datuak babesteko ordezkari bat izendatu beharra dagoela.

Beste alde batetik, erregelamendu horrek 37.3 artikuluan xedatzen du tratamenduaren arduraduna edo erantzulea agintaritza edo organismo publiko bat baldin bada, datuak babesteko ordezkari bakarria izendatu ahal izango dela agintaritza edo organismo horietako bat baino gehiagotarako, haien antolaketa egitura eta tamaina kontuan izanik.

Ildo beretik, Datu Pertsonalak babesteko eta Eskubide Digitalak bermatzeko abenduaren 3/2018 Lege Organikoak 34. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten du datuak babesteko ordezkari bat izendatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko uztailaren 3ko ezohiko bilkuran udalbatzak hartutako erabakiaren bidez eratuak (2019ko abuztuaren 16ko 94. ALHAO), aho batez, honako hau:

#### ERABAKI DU

Lehenengoa. Global Factory SL enpresaren menpeko Jesús Soler Lorent datuak babesteko ordezkari izendatzea, bere lanbide ezaugarriak eta eginkizunak betetzeko gaitasuna direla-eta.

Bigarrena. Zehaztea figura horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritako funtzioak beteko dituela (2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa), eta, horrenbestez, eginkizun horiek betetzeko behar diren baliabideak emango zaizkiola, bai eta datu pertsonaletarako eta dagozkion tratamendu eragiketetarako sarbidea ere.

Hirugarrena. Erabaki hau udaleko langileei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

Laugarrena. Datuak babesteko ordezkariaren izendapena interesdunari jakinaraztea.

Bosgarrena. Bat etorri Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorrak 37.7 artikuluan araututakoarekin eta datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak 34.3 artikuluan xedatutakoarekin, argitara emango dira datuak babesteko ordezkariaren beharrezko datuak, berarekin harremanetan jarri ahal izateko, eta haien berri emango zaio kontrol agintaritzari.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Izarra, 2021eko azaroaren 5a

*Lehendakaria*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAÑA*